

Izaskun Basterretxea | **BILBO**

Jokorako zaletasuna aspaldikoa da gure gizartean. Baina azken urteotan gero eta gehiago entzuten da ludopatia berbea. Jokoak harripatu eta irunsten zaituanean sortzen da. «Ludopatia ez da jokoan zaletasun handia edo bizioa eukitea, gaixotasuna da, jokoak menpean hartzen zaitualako», azaldu deutso *Bizkaiari* Pedro Calvok, Ekintza Aluviz alkarteko lehendakariordeak. Ludopaten alkartea da hori, Bizkaian erakunde onarpena daukan bakarra.

«Gaur egun, ehun bizkaitarretik hiru dira ludopata». Arduratzeko moduko kopurua. «Eta ludopatiaren ondorioak latzak izaten dira, gaixoarentzat bera-
rentzat eta familiarentzat be bai: diruz lur jota ixtetik aparte, norbere burua hil dauanik be bada-
go, besteak beste».

Ludopata batek jokoari ixteko, osatzeko, laguntasuna behar dauela nabarmendu dau sarritan Calvok. «Bakarrik lortzea gatxa da». Horregaitik sortu eben Ekintza Aluviz, 1990ean. «Ludopatiak gaixoari eta familiari sortzen deutsezan ondorio txarrak gainditzen laguntzeko; laguntasun publiko, sozial eta sanitariorik ez egoalako». Pedro Calvo bera izan zan alkarteko lehenengo ludopata. Eta, sortu zanetik hona, 3.500 ludopata ingururi lagundu deusie alkar-
tean, doan. «Eta osatu, %70-75 osatu dira».

«Familiaren laguntasuna garrantzitsua da»

Gaur egun, oster, 300 bat ludopatek jasoten dabe tratamendu alkar-
tean. Eta terapia, 12-



XOUSE SIMAL

JOKOA. «Ludopata ez da jaioten, jokoak harripetan zaituanean sortzen da», esan dau Pedro Calvok.

Jokoak iruntsi ezker...

LUOPATIA. «Ludopatak laguntasuna behar dau osatzeko, bakarrik lortzea gatxa da», esan dau Ekintza Aluviz alkarteko Pedro Calvok

15 hilabete ingurukoa izaten da. «Ludopatia osatzeko ez dogu ezelako medikamenturik emoten, laguntasun psikologikoan oinarritzen da. Terapia banan-banan eta taldeka egiten da, eta, horregaz batera, familiaren laguntasuna be garrantzitsua da».

Ludopataren soslaia osatzea ezinezkoa edo gatxa dala esan dau Calvok. «Izan be, edonor

izan leiteke, eta danetik dago ganera: medikuak, exekutiboak, ingeniariak, etxeoandrak... Ludopata ez da berez jaioten, egin egiten da, jokoak harripetan zaituanean sortzen da».

Sasoi baten be egongo ziran ludopatak, baina jakina da azken urteotan kopuruak gora egin dauana. «Nahinon dagoz eta makinak, argitxo erakargarriakaz... jokora erakarten, eta

sariak engainatuta, iruntsi egin ahal zaitu». Ganera, edozein joko harripatu ahal zaitula azpimarratu dau. «Gaur egun, bideo jolasek, Internetek eta holakok be sortu ahal dabe menpe-
tasuna, eta gaztetxoan artean be bai... Horreek ez dabe diru galerarik sortzen, baina beste ondorio batzuk ekarri ahal di-
tue: ikasgaiak gainditu ez, fami-
liagaz edo lagunakaz alkariz-

PEDRO CALVO

Ekintza Aluvizeko lehendakariordea

«Ludopatia ez da bizioa edo jokoan zaletasun handia izatea; ludopatia gaixotasuna da»


«Ehun bizkaitarretik hiru ludopata dira, eta ondorio txarrak gaixoari berari eta familiari sortzen deusieez»

keta galdu...». Dana dala, alkar-
tea jokoaren eta Interneten kontra ez dagoala nabarmendu dau Calvok. Baina urtenbideak aurkitu behar dirala esan dau.

Behar horreei erantzuteko sortu eben Ekintza Aluviz. Eta alkarteko kideak boluntarioak dira, doan egiten dabe lan, eta bertara doanak be doan eukiten dau laguntasuna. «Arratsalde-
iluntzeetan, lanetik urtendakoan egiten dogu behar alkar-
tean, psikologok eta danek egiten dabe borondatez, eta kobratu ez arren, herri batetik bestera joa-
teko-eta, gastuak sortzen dira». Horretarako, Jaurilaritzaren la-
guntasuna daukie, «baina ez da nahikoa». Hori dala eta, Aldun-
diko Gizartekintza Sailagaz eta Jaurilaritzagaz alkartu, eta ma-
haia osatzekoak dira, alkar-
tearen beharrak zeintzuk diran az-
tertze-
ko.

Ekintza Aluvizek Barakaldon dauka egoitza: San Juan kaleko 26an (944 388 665). «Lagun-
tasuna behar dauan edonori la-
guntzeko gertu gagoz hemen».

- 1 Arbërishtja
- 2 Katalana
- 3 Serbokroaziera
- 4 Friulera
- 5 Grekoa
- 6 Ladinoa
- 7 Okzitaniera
- 8 Sardiniera
- 9 Esloveniera
- 10 Galiziera
- 11 Frantzesia
- 12 Euskara
- 13 Bretainiera
- 14 Korsikera
- 15 Daniera
- 16 Alemana
- 17 Frisiera
- 18 Nederlandera
- 19 Irlandako Gaelikoa
- 20 Eskoziako Gaelikoa
- 21 Kornuallesera
- 22 Franko Probentzala
- 23 Galesera
- 24 Eskoziera
- 25 Aromaniera
- 26 Pomakiera
- 27 Turkoa
- 28 Serbia
- 29 Luxenburgera
- 30 Frasch
- 31 Seeltersk
- 32 Oil Hizkuntzak
- 33 Asturiera
- 34 Mazedoniera
- 35 Arbëror



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA HIZKUNTZEN URTE EUROPARREAN EUSKARAREN ALDE



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila